

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2019ko ABENDUAREN 13ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratuak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, lehendakariak eskuordetuta.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Agurtzane Llano andrea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzuz.

Monika Hernando andrea, Lehendakaritza ordezkatzuz.

Eva Juez andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordea ordezkatzuz.

Josu Basozabal jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Nerea Melgosa andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ainhoa Gainberri andrea, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

María del Mar Magallón andrea, Josu Urrutia jauna, Iñigo Eguren jauna, Iñaki Orube jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna eta Irene Molero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Elsa Fuente andrea, Zaloa Pérez andrea eta Gorka Urrutia jauna, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidentek gonbidatuta entzule gisa bertaratu dira Leyre Madariaga andrea, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako zuzendaria, gai-zerrendako bigarren punturako; eta Ana Rojo andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkularitza juridikoaren arduraduna, hirugarren punturako.

Ezin etorria adierazi dute:

Sofía Marroquín andreak, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidenteak eta Kontseiluko presidenteordeak.

Fátima Ansotegi andreak, Osasun Saila ordezkatzuz.

Alberto Alberdi jaunak, Ogasun eta Ekonomia Saila ordezkatzuz.

Jone Miren Fernández andreak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Saila ordezkatzuz.

Elena Moreno andreak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila ordezkatzuz.

Olatz Garamendi andreak, Hezkuntza Saila ordezkatzuz.

Zuriñe Elordi andreak, Emakunde ordezkatzuz.

Maite Etxebarria andreak, EUDEL ordezkatzuz.

Olga García andreak, María Viadero andreak eta Santiago Martínez jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Joseba Andoni Sainz de Murieta jaunak, Patricia Bárcena andreak eta Igone Revilla andreak, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Lekua: Lehendakaritza

Eguna eta ordua: 2019ko abenduaren 13a, 11:00 etan.

Jonan Fernándezek bertaratuei ongietorria eman die, eta, 11:18an, bilkurari hasiera eman dio. Jonan Fernándezek barkamena eskatu du bilkura utzi behar duelako, ustekabeen urgentziatzeko bilera bat sortu baitzaio, eta Paul Ortega presidente gisa aritzea adostu da, Sofia Marroquín ez dagoela aintzat hartuta. Bertaratuen aurkezpenak egin dira. Ondoren, honako gai-zerrenda honi ekin zaio:

- Aurreko bilkuraren akta onartzea
- Euskadi Basque Country 2030 agendaren aurkezpena
- Garapenerako lankidetzaren “Ignacio Ellacuría” saria arautzen duen Dekretu-proposamenaren aginduzko txostena egitea
- 2019an AUZO(LAN)KIDEEN inplementazioan egindako aurrerapenei buruzko informazioa
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2020ko urteko planaren lerro nagusien aurkezpena eta eztabaida
- Bestelakoak eta galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Agurtzane Llanok eskatu du hitzarekin bai bainan botorik gabe parte hartu zuela adierazten duen aipamena kentzeko, urriaren 14an izendatu zutelako. Zuzenketa hori egin ondoren, akta aho batez onartu da.

2. EUSKADI BASQUE COUNTRY 2030 AGENDAREN AURKEZPENA

Euskal administrazio publiko guztiak 2030 Agenda lokalizatzeko ahaleginetan ari dira. Batzorde Iraunkorraren baitan egokitzen jo zuten erakunde bakoitzak alor horretan egindako apustuak sozializatzen joatea. Bilkura honetara Leyre Madariaga etorri zaigu, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia, [Basque Country 2030 agenda](#) eta lehen bi egitaritze-urteetan lortutako aurrerapenak aurkezteko.

Leyre Madariagak esker ona adierazi du, Eusko Jaurlaritza 2030 Agendaren alorrean egiten ari dena Kontseiluari aurkezteko gonbidatu izanagatik. Adierazi duenez, partekatze gune hori une interesgarria izan daiteke ideia, gogoeta eta proposamenak biltzeko.

Jakinarazi duenez, 2030 Agenda legegintzaldia aldatzearekin batera jarri zen martxan, eta horregatik Eusko Jaurlaritza 2017an hasi zen hura inplementatzeko lanetan. XI. Legegintzaldiko Gobernu Programan, erronka globaletarako ekarpenik handienak egiten dituzten ekimenak identifikatu ziren: 100 helmuga, 93 konpromiso, 80 plangintza-tresna, 19 legegintza-ekimen eta 50 adierazle.

Adierazi duenez urtero-urtero Basque Country 2030 Agendaren jarraipena egiten ari da. Eta ildo horretan egindako zenbait aurrerapenen berri eman du, adibidez, bonu jasangarriak jaulki izana, Global Compact-ekiko aliantza Garapen Iraunkorrerako

Helburuak euskal ETEetara hurbiltzeko, edo [Euskadi Basque Country 2030 Agenda Multimaila](#) zehaztea aldundiekin eta hiru hiriburuetakako udalekin.

María del Mar Magallón kezkatuta azaldu da 2030 Agenda kliman, lurraldearen jasangarritasunean eta antzeko gaietan zentratzen ari delako, nazioarteko elkartasunaren dimentsioa eta nazioarteko garapena sustatzeko darabilgun modua alde batera utzita.

Leyre Madariagak onartu du litekeena dela lankidetzaren behar bezain agerikoa ez izatea. Eta lankidetzaren eragileak animatu ditu espazio hori ez galtzeko errebindikazioak areago ditzaten, gizartearentzat, oro har, klima-arazoa ezagunagoa delako 2030 Agenda baino.

Iñaki Orubek adierazi du Garapen Iraunkorrerako Helburuak gero eta ezagunagoak direla. Baina bera ere kezkatuta agertu da Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arreta guztia tokikoan jartzen delako. Eta konpromiso, adierazle eta tresnak Eusko Jaurlaritzaren edo Idazkaritzaren baitan eraiki ote diren galdetu du.

Leyre Madariagak erantzun dio Agenda Gobernu Programan oinarrituta dagoela. Eta erantsi duenez, toki-ikuspegi horretatik abiatzen da, tokikotik ikusteko globalean eragiten ari garen inpaktua. Eta gizarte zibileko erakundeek hobekuntza-eremuak identifikatzeko eta eragiteko zeregin garrantzitsua dutela ekarri du gogora.

Elsa Fuentes aipatu du paradigma berriak nabari direla: iparra-hegoa dikotomia apurtu da, eta oinarritzko desparekotasunak ageri dira kontinente guztietan. Garapenerako lankidetzaren ikusmolde zaharra gainditu da. Haren ustez, 2030 Agenda oso tresna baliagarria da mahai gainean jartzeko, baina hirugarren sektorea ez da tresna horren ahalmen osoa aintzat hartzen ari.

María del Mar Magallónek baloratu du hainbat eragile 2030 Agendarekin lerrokatzen ari direla, baina aldi berean ohartarazi du eragile gehienek nork bere espazioan, lurraldean edo udalerrian zehazten dutela. Garapen Iraunkorrerako Helburuek hemen eta beste toki batzuetan jardutera gonbidatzen gaituztela erantsi du. Eta, ildo horretatik, Agendaren inplementazioa motz gera litekeela.

Paul Ortegak Leyreraren agerraldia eskertu du, eta aurrerago beste bilkura bat egitea gustatuko litzaiokeela, eremu horretan egindako aurrerapenen jarraipena egiteko.

Leyre Madariagak adierazi du bertaratutako pertsona eta erakundearen ekarpenak jasotzeko prest dagoela, prozesua hobetzeraren.

3. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN “IGNACIO ELLACURÍA” SARIA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROPOSAMENAREN AGINDUZKO TXOSTENA EGITEA

Paul Ortegak gogora ekarri du, irailaren 16ko 158/2008 dekretuko 2. artikuluko a) atalak ezartzen duenez, Kontseiluaren funtzioen artean dagoela alde aurreko eta

aginduzko txostena ematea Eusko Jaurlaritzaren xedapen orokorreari buruzko proiektuen inguruan, garapenerako lankidetzaren eremuan. Azaroaren 27an, dekretu-proiektua igorri zitzaion osoko bilkurako kideei. Emakunderen eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ekarpenak jaso dituztela eman du aditzera. Eta Batzorde Iraunkorrek, hilaren 11n, aginduzko txosten baten zirriborro bat egin zuela, Ana Rojok eztabaidatzeko, eta, bidezko bada, ondoren onartzeko, aurkeztuko duena.

Ana Rojok azpimarratu du Emakunderen ekarpenak berresten duela dekretu-proiektua Berdintasunerako Legearekin bat datorrela. Eta, bestetik, Koordinakundeak eztabaidatu eta argitu beharreko bi gai proposatzen dituela.

- (i) Erregulazio berriak ezartzen du deialdia aldi behin egingo dela, eta ez urtean behin: Irene Molerok galdetu du zer dela-eta aldatu den. Ana Rojok erantzun du zenbait gorabehera direla medio, 2008az geroztik urte batzuetan ez dutela sariaren deialdia egin, eta horregatik, ez-betetzeetan ez erortzeko, malgutasun handiagoarekin jokatzeko erabaki dutela. Koordinakundeak azalpena onartu du, eta oharra atzera bota du.
- (ii) Epaimahaia osatzen duten pertsonak: Ana Rojok azaldu duenez, legeak ezartzen du nahitaezkoa dela dekretuak presidentea eta idazkaria nor diren zehaztea. Aldian behingo deialdi-ebazpenetan ezar daitezke gainerako kideen izenak. Koordinakundeak adierazi du epaimahaian parte hartzen eta araudian konpromiso hori argi uzten jarraitu nahi duela. Gaia eztabaidatu eta epaimahaia osatzeko proposamen zehatz bat adostu da aho batez.

Aldaketa horiek egin ondoren, aginduzko txostena aho batez onartu da (17 boto alde).

Ana Rojok adierazi du izapidetze-prozedurarekin aurrera jarraituko dutela, eta, behin onartu ondoren, 2020ko deialdia dekretu berrian oinarrituta egingo dela aurreikusten dutela.



Informe preceptivo
CVCD- decreto SAR

4. 2019an AUZO(LAN)KIDEEN INPLEMENTAZIOAN EGINDAKO AURRERAPENEI BURUZKO INFORMAZIOA

AUZO(LAN)KIDEAK askotariko 10 ekimen esanguratsu dira, 2018-2021 Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planean aurreikusita egonik, plan horrekin bultzatu nahi ditugun ikuspegiak indartu nahi dituztenak, lan egiteko modu berriak sortuz elkarriketari garrantzi handiagoa emanez, gaitasunak hobeto aprobetxatzea sustatu eta esperientziaren araberrako ikaskuntzak sortzearen. Ekimen horiek erronka zehatzei heltzen diete ikuspegi orokor batetik, eta hainbat eragilerekin elkarlanean.

Batzorde Iraunkorren baitan adostu zen aldi-aldi informazioa ematea AUZO(LAN)KIDE bakoitzean egindako aurrerapenaren inguruan.

Paul Ortegak aurkeztu ditu uztailen emandako azken informaziotik egindako aurrerapenak.



Presentación
AUZO(LAN)KIDEAK_C

Aurkezpenaren ondoren inork ez du hitza hartu.

5. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2020KO URTEKO PLANAREN LERRO NAGUSIEN AURKEZPENA ETA EZTABAIDA

Paul Ortegak gogora ekarri du Batzorde Iraunkorraren esparruan orain bi urte adostu zela Kontseiluko kide diren lankidetzaren erakundeek beren plangintza eta aurrekontuak aurkeztu beharko zituztela urtearen hasieran. 2020ko lehen hiruhilekoan bilkura hori egitea baztertu gabe, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak 2020. urteko planaren lerro nagusiak sozializatu nahi ditu, eta elkarrizketarako gunea ireki nahi du, plana aberasteko lagungarri izan daitezkeen ekarpenak jasotzearen. Paul Ortegak lerro nagusiak aurkeztu ditu eta elkarrizketarako gunea ireki du.



Presentación
lineamientos plan a

Eneko Gerrikabeitiak koordinazio handiagoa eskatu du Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen deialdietako daten artean, eta ebazpenak azkarrago hartzea ere eskatu du.

Paul Ortegak erantzun dio beren esku dagoen guztia egiten ari direla proiektuen deialdia aurreratzeko. Jakinarazi du, halaber, Agentziak, zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat denez, ezin dezakeela izapidetzea aurreratu. Eta gaineratu du, datei dagokienez ere aurrera ari direla, erakundearteko koordinazioa hobetzeko bidean.

Irene Molerok programen deialdiari buruzko interesa azaldu du. Paul Ortegak gaia zertan den azaldu du, eta elaborazio- eta izapidetze-prozesua aurreikusi baino gehiago luzatzen ari dela. Aipatu du, halaber, Nazio Batuen erakundeetako beken dekretua berrikusteko lanean ari direla. Irene Molerok galdetu du proiektuen deialdiko dekretua aldatzea aurreikusi ote den, hezkuntzari buruzko hirugarren kapituluko proiektua luzatzeko ezintasunaren haritik sortutako zailtasunak direla-eta batik bat. Paul Ortegak erantzun du hala dela, hau da, araudia berrikusi beharra dagoela, baina aipatu baino ikuspegi zabalago batetik nolana ere. Adierazi du, halaber, arauak aldatzeko prozesuak denboran luzatu ohi direla, esate baterako, genero-berdintasunaren aldeko antolaketa aldatzeko dekretuaren aldaketak bi urte eraman zituen.

2020ko urtarrilaren 17ra arte planaren lerroetara ekarpen idatziak bidaltzeko aukera eskaini da.

6. BESTELAKOAK ETA GALDE-ESKEAK

Noemí de la Fuentek informazioa aurkeztu du 2020rako garapenerako politiken koherentzia-taldearen lan-proposamenaren inguruan. Iragarri duenez, urtarrilean lehen saio bat egingo da, taldea garapen jasangarrirako politiken koherentzia-kontzeptuaren gainean prestatzeko. Eta, erantsi duenez, urteko lan-plana eta barne-funtzionamenduko erregelamenduaren zirriborro bat aurkeztuko dira; ekarpenak egiteko aldi bat izango da, eta ondoriozko dokumentua osoko bilkurara ekarriko da, onartzeko.

Jakinarazi du, halaber, abenduaren 10ean, asteartea, Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-politiken eta balioetan oinarritutako hezkuntza garatzeko politiken lehen koherentzia-txostena egiteko lizitazioa argitaratu zela. Agentziak Kontseiluko kideekin partekatuko du informazioa, beren harremanen artean zabal dezaten. Eta iragarri du urtarrilean, hezkuntza-laneko azpitaldearen lehen bilera bat egingo dela, jasotako eskaintzen eta baremazio-irizpideen gaineko informazioa partekatzeko eta proposamen irabazleari egin beharreko ekarpenak adosteko.

Jakinarazi du, halaber, otsailean txostenei buruzko lehen azpitaldea martxan jarriko dela.

Jose Antonio Alonsoren azken liburua aurkezteko baliatu zen abenduaren 4ko ezohiko bilkurari dagokionez, Iñaki Orubek proposatu du interesgarria litzatekeela horrelako bilkuretan parte hartzeko aukera bultzatzea. Ildo beretik, Paul Ortegak adierazi du aurkezpena luzeegia izan zela, eta eztabaidatzeko denbora urria izan zela.

Horrez gain, Iñaki Orubek proposatu du bilkura batzuk beste bi lurralde historikoetan egiteko aukera aztertzea.

Paul Ortegak adierazi du kide guztien esku dagoela Kontseiluak bere funtzioak betetzea eta bizia eta oparoa izatea, eta hobetzeko iradokizun guztiak Batzorde Iraunkorrari helaraztea proposatu du.

Josu Urrutiak proposatu du bilerak urtean zehar hobeto banatzea. Paul Ortegak adieraz du Batzorde Iraunkorrean adostu zela uda baino lehen bi bilkura egitea, eta lehena Aste Santua baino lehen egiten ahalegintzea.

Paul Ortegak jakinarazi du 2020ko otsailean, Bilbon, lankidetzaren deszentralizatuko jardunaldiak egingo direla, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskal Fondoaren ekimenez, PLATFORMAREN eskutik eta Bilboko Udalaren eta GGKEen Koordinakundearen laguntzarekin, eta Kontseiluko kideak jardunaldietara bertaratzera gonbidatu ditu. Bilbon, Lankidetzaren eta Elkartasun Fondon Konfederazioaren urteko bilera eta Autonomia Erkidegoen eta garapenerako lankidetzaren XIII. Topaketa egingo dira, aldi berean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez gero, bilera amaitutzat eman da 13:11n.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

PAUL ORTEGA ETCHEVERRY

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEAK ESKUORDETUTA**